Comarcal, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de la fecha,

ACUERDO:

Nombrar a doña Almudena Otaola Urquijo para el desempeño, como funcionaria interina, del puesto de trabajo de Secretaria del Ayuntamiento de Okondo.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 1998.— El Diputado General, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— El Diputado Foral titular del Departamento de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal, GREGORIO ALONSO VALLEJO.

***- Ordenes Forales***

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

**8.322**

**ORDEN FORAL 1.484 de 27 de noviembre de 1998, por la que se aprueba el modelo 180 de resumen anual de Retenciones e Ingresos a cuenta de los rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos, así como los diseños físicos y lógicos, a los que deberán ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador para su presentación en sustitución de las hojas interiores de relación de arrendadores.**

El Decreto Foral 5/1998, del Consejo de Diputados de 3 de febrero, que incorpora al sistema fiscal del Territorio Histórico de Alava las modificaciones introducidas por el Real Decreto 113/1998, de 30 de enero en los Reglamentos de los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre Sociedades, establece la obligación de practicar retenciones e ingresos a cuenta de dichos impuestos a los obligados tributarios que satisfagan o abonen rendimientos procedentes del arrendamiento de bienes inmuebles urbanos.

Por su parte, el artículo 59.dos del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aprobado por el Decreto Foral 154/1992 de 10 de marzo y el artículo 58.2 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 51/1997 de 20 de mayo, preceptúan que el retenedor y el obligado a ingresar a cuenta deberán presentar, en el mismo plazo de la última declaración de cada año, un resumen anual de las retenciones e ingresos a cuenta efectuados en el que consten los datos a los que se hace referencia en estas disposiciones reglamentarias.

Para establecer las condiciones de presentación de los datos incluidos en el resumen anual, el apartado cinco y 5 respectivamente de los artículos mencionados anteriormente, facultan al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para la aprobación del modelo, así como para determinar la forma y lugar en que deba efectuarse la declaración.

En este sentido, y con el objeto de facilitar a los obligados tributarios la presentación cada vez más frecuente, de declaraciones informativas en soporte directamente legible por ordenador, se han regulado las condiciones y diseños de dichos soportes de forma equiparable al de otro tipo de declaraciones informativas.

En su virtud y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobación del modelo 180.

Se aprueba el modelo 180 "Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas e Impuesto sobre Sociedades. Retenciones e ingresos a cuenta. Rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos. Resumen anual" que figura en el anexo I de la presente Orden Foral. Dicho modelo se compone de los siguientes documentos:

a) Hoja-resumen que consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

b) Hojas interiores de relación de arrendadores, cada una de las cuales consta, asimismo, de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT:

Almudena Otaola Urquijo izendatzen da Okondoko Udaleko idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko.

Vitoria/Gasteiz, 1998ko abenduaren 1a.— Diputatu nagusia, FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.— Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Saileko foru diputatua, GREGORIO ALONSO VALLEJO.

***- Foru Aginduak***

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

**8.322**

**1.484 FORU AGINDUA, 1998ko azaroaren 27koa, zeinen bidez 180 eredua eta diseinu fisiko eta logikoak onartzen diren. Eredu horretan hiri ondasun higiezinen errentamendutik datozen etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu behar dira (urteko laburpena), eta diseinuak errentatzaileen zerrendaren barruko orrien ordez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak aurkezten direnean jarraitu beharrekoak dira.**

Diputatuen Kontseiluak otsailaren 3an emandako 5/1998 Foru Dekretuaren bidez urtarrilaren 30eko 113/1998 Errege Dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan egindako aldaketak Arabako Lurralde Historikoaren zerga sisteman sartzen dira, eta, besteak beste, hiri ondasun higiezinen errentamendutik datozen etekinak ordaintzen dituzten zergapekoek zerga horiek direla-eta atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituztela agintzen da bertan.

Beste alde batetik, atxikitzaileak eta konturako sarrera egin behar duenak atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztu behar dute, urte bakoitzaren azken aitorpena egiteko epearen barruan, horrela egiteko agintzen baitute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, 59. artikuluaren bi puntuan (martxoaren 10eko 154/1992 Foru Dekretua), eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, 58. artikuluaren 2. puntuan (maiatzaren 20eko 51/1997 Foru Dekretua). Esandako laburpenean erregelamenduzko bi xedapen horietan aipatzen diren datuak jaso behar dira.

Urteko laburpenean datuak nola aurkeztu behar diren erabakitzeko, arestian esandako artikuluen bost eta 5 zenbakietan, hurrenez hurren, ahalmena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari eredua onar dezan eta aitorpena non eta nola egin behar den zehatz dezan.

Ildo horretan, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko aitorpenek zer baldintzak bete behar dituzten eta zer diseinu izan behar duten arautu da, beste aitorpen informatibo motak bezala aurkeztu ahal izateko. Erraztasuna handitu nahi zaie zerga aitorpenak aurkeztu behar dituztenei, gero eta maizago erabiltzen den aurkezpen modu hori erabil dezaten.

Aurrekoagatik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

LEHENENGOA.- 180 eredua onartzea.

"Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Hiri ondasun higiezinen errentamendutik etorritako etekinak. Urteko laburpena" izeneko 180 eredua onartzea. Eredu hori Foru Agindu honen I. eranskinean jasota dago. Honako dokumentu hauek osatzen dute eredua:

a) Laburpen-orria. Bi ale ditu, bat administraziorako eta bestea interesatuarentzat.

b) Errentatzaileen zerrenda jasotzen duten barruko orriak. Denek bi ale dituzte, bat administraziorako eta bestea interesatuarentzat.

SEGUNDO.- Aprobación del soporte directamente legible por ordenador.

Uno.- Se aprueban los diseños físicos y lógicos que figuran en el anexo II de esta Orden Foral, a los que deberán ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador para su presentación en sustitución de las hojas interiores de relación de arrendadores correspondientes al modelo 180.

Dos.- Será obligatoria la presentación en soporte directamente legible por ordenador de aquellos resúmenes anuales que contengan más de 100 arrendadores relacionados en la declaración. En los demás casos, la presentación en soporte directamente legible por ordenador será opcional.

Tres.- La presentación en soporte directamente legible por ordenador de las declaraciones correspondientes al modelo 180 podrá realizarse de forma individual o colectiva, según que el archivo correspondiente contenga los datos de un solo retenedor u obligado a ingresar a cuenta, en el primer caso, o de varios en el segundo.

Cuatro.- No será necesario efectuar solicitud previa alguna para realizar la presentación del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta en soporte directamente legible por ordenador, ya sea de forma individual o colectiva.

TERCERO.- Lugar y plazo de presentación del modelo 180 en impreso.

Uno.- La presentación en impreso del resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 180, de realizará en los 25 primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al año inmediato anterior.

Dos.- La presentación se efectuará, bien directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, o bien a través de correo certificado dirigido a la mencionada oficina.

CUARTO.- Lugar y plazo de presentación del modelo 180 en soporte directamente legible por ordenador.

Uno.- La presentación del soporte directamente legible por ordenador conteniendo el resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta, modelo 180, se realizará en el período comprendido entre el 1 de enero y el 10 de febrero de cada año, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan al año inmediato anterior.

Dos.- La presentación se efectuará, bien directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos o bien a través de correo certificado dirigido a la mencionada oficina.

QUINTO.- Procedimiento para la presentación de los soportes directamente legibles por ordenador del modelo 180.

1.- El contenido de los soportes magnéticos será examinado inmediata y provisionalmente en la dependencia administrativa receptora, la cual determinará:

a) La recepción provisional del soporte magnético, cuando de su examen se desprenda:

a') El cumplimiento de los requisitos señalados en la presente Orden Foral.

b') La inexistencia de espacios "blancos" en campos que necesariamente han de venir cumplimentados.

c') La inexistencia aparente de datos erróneos en la identificación del declarante y en la cumplimentación de la declaración.

b) El rechazo del soporte magnético por no cumplirse los requisitos señalados en la presente Orden Foral o darse alguna de las circunstancias señaladas en las letras b y c anteriores.

2.- La recepción del soporte magnético a que se hace referencia en el número 1 de este apartado se producirá con carácter provisional a resultas de las actuaciones administrativas correspondientes.

3.- En el momento de la recepción provisional del soporte magnético, la unidad administrativa receptora entregará al presentador del soporte una diligencia de presentación de éste, cuya copia quedará en poder del funcionario receptor una vez firmada por el presentador para ser depositada en el archivo correspondiente.

BIGARRENA.- Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria onartzea.

Bat.- Foru Agindu honen II. eranskinean jasota dauden diseinu fisiko eta logikoak onartzen dira. Diseinu horiei jarraitu behar zaie ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak, 180 ereduari dagozkion errentatzaile zerrendaren barruko orrien ordez aurkezten direnean.

Bi.- Urteko laburpenaren aitorpenean 100 errentatzaile baino gehiago jasota badaude, derrigorrezkoa izango da ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztea. Beste kasuetan, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztea aukerakoa izango da.

Hiru.- 180 ereduari dagozkion aitorpenak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak banaka aurkez daitezke, fitxategian atxikitzailea edo konturako sarrera egin behar duena bakarra bada; edo taldean, bati baino gehiagori baldin badagokio.

Laugarrena.- Aurretik eskabiderik ez da egin beharrik atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko, ez banakakoak direnean, ez taldekoak direnean.

HIRUGARRENA.- 180 eredua inprimakiz aurkezteko lekua eta epea.

Bat.- Atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena egiteko inprimakia urteroko urtarrilaren lehenengo 25 egun arrunten barruan aurkeztu beharko da, aurreko urteari dagozkion zenbateko atxikiak eta konturako sarrerak direla-eta.

Bi.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko bulegoetan aurkeztuko dira, zuzenean, edo, bestela, posta ziurtatu bidez, bulego horretara zuzenduta.

LAUGARRENA.- 180 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko lekua eta epea.

Bat.- Atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria urteroko urtarrilaren 1etik 10era aurkeztu behar da, aurreko urteari dagozkion zenbateko atxikiei eta konturako sarrerei dagokienez.

Bi.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko bulegoetan aurkeztuko dira, zuzenean, edo, bestela, posta ziurtatu bidez, bulego horretara zuzenduta.

BOSGARRENA.- 180 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko modua.

1.- Euskarri magnetikoen edukia administrazio bulego hartzailean aztertuko da behin-behingoz aurkezteko unean. Bulego horrek honela jokatuko du:

a) Euskarri magnetikoa behin-behingoz jasoko du, azterketan hauxe egiaztatzen bada:

a') Foru Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla.

b') Nahitaez beterik egon beharreko laukiak behar bezala beterik daudela.

c') Aitorpen egilearen identifikazioan eta aitorpenaren datuetan akatsik ez dela, gainetik begiratuta.

b) Euskarri magnetikoa ez du jasoko, Foru Agindu honetako baldintzak bete ezean edo aurreko b´eta c´letretan esandakoak gertatuz gero.

2.- Euskarri magnetiko jasotzen bada, bosgarren atal honetako 1. zenbakian aipatu den bezala, behin-behingoz jasoko da, dagozkion administrazio jardueren emaitzaren zain.

3.- Euskarri magnetikoa behin-behingoz jasotzeko unean, administrazio unitate hartzaileak aurkezpen diligentzia bat emango dio aurkezleari. Diligentzia horren kopia bat aurkezleak sinatuko du, eta funtzionario hartzaileak hartu eta dagokion fitxategian gordeko du.

4.- En el supuesto de que el soporte magnético fuera rechazado, la dependencia receptora extenderá la oportuna diligencia, en la que se señalará de forma somera la causa del rechazo. Cuando el soporte magnético sea rechazado, la o las declaraciones contenidas en el mismo se tendrán por no presentadas a todos los efectos.

5.- Tratándose de presentación individual en soporte directamente legible por ordenador, del modelo 180, el declarante presentará los siguientes documentos:

5.1) Los dos ejemplares, para la Administración y para el interesado de la hoja-resumen del modelo 180 debidamente firmados y en las que se habrá hecho constar los datos de identificación del obligado tributario o declarante, mediante la adhesión de la correspondiente etiqueta identificativa, así como los demás que en la citada hoja-resumen se solicitan excepto los relativos a la presentación colectiva.

Una vez sellado por la oficina receptora, el declarante retirará el "ejemplar para el interesado" de la hoja resumen del modelo 180 presentado, que servirá como justificante de la entrega.

5.2) El soporte directamente legible por ordenador deberá tener una etiqueta adherida en el exterior, en la que se hagan constar los datos que se especifican a continuación y, necesariamente por el mismo orden:

a) Diputación Foral de Alava.

b) Ejercicio.

c) Modelo de presentación: 180.

d) Número de Identificación Fiscal (NIF) del declarante.

e) Apellidos y nombre, o razón social, del declarante.

f) Domicilio, municipio y código postal del declarante.

g) Apellidos y nombre de la persona con quien relacionarse.

h) Teléfono y extensión de dicha persona.

i) Número total de registros.

j) Densidad del soporte: 1.600 ó 6.250 BPI, sólo cintas, y 360 KB, 1,2 MB, 720 KB ó 1,44 MB, en disquetes de 51/4" ó 31/2".

Para hacer constar los referidos datos, bastará con consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda según la relación anterior.

En el supuesto de que el archivo conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n, etc., siendo "n" el número total de soportes, pero en la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c), d) y e) anteriores.

6. Tratándose de presentación colectiva del modelo 180 en soporte directamente legible por ordenador, la persona o entidad presentadora entregará los siguientes documentos:

6.1) Los dos ejemplares para la Administración y para el interesado, de la hoja-resumen correspondiente al presentador, modelo 180, debidamente firmados y en los que se habrá hecho constar los datos de identificación de la persona o entidad que actúe como presentadora, mediante la adhesión de la correspondiente etiqueta identificativa, los relativos al número total de declarantes y al número total de arrendadores relacionados, así como el ejercicio y la casilla indicativa del tipo de presentación en los espacios correspondientes.

No serán cumplimentados los restantes datos solicitados en la hoja-resumen del modelo 180 correspondiente al presentador.

Una vez sellado por la oficina receptora, el presentador retirará el "ejemplar para el interesado" de la hoja-resumen, que servirá como justificante de la entrega.

6.2) Los dos ejemplares, para la Administración y para el interesado, de las hojas resumen, modelo 180, correspondientes a todos y cada uno de los declarantes contenidos en la presentación colectiva, debidamente firmados y cumplimentados.

4.- Euskarri magnetikoa jasotzen ez bada, bulego hartzaileak horri buruzko diligentzia egingo du, ez jasotzearen arrazoia zen den laburki azalduz. Euskarri magnetikoa jasotzen ez bada, bertan dauden aitorpenak aurkeztu ez direla ulertuko da ondorio guztietarako.

5.- 180 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian pertsona bakar bati dagokionez aurkezten denean, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira euskarriarekin batera:

5.1) 180 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, administraziorakoa eta interesatuarentzakoa. Aitorpen egilearen edo zergapekoaren identifikazio datuak agertu behar dira identifikazio etiketa dagokion lekuan itsatsita. Laburpen orrian eskatzen diren gainerako datu guztiak ere agertu behar dira, taldeko aitorpenei dagozkienak izan ezik.

Bulego hartzaileak zigilua ezarri eta aitorpen egileak 180 ereduaren laburpen orriaren "interesatuarentzako alea" jasoko du. Ale horrek aurkezpena egin dela frogatzeko balio izango du.

5.2) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian txartel bat jarri beharko da, kanpo aldean, ondoren zerrendatzen diren datuak agertzeko. Datuek hurrenkera horretan bertan agertu behar dute. Hona:

a) Arabako Foru Aldundia.

b) Ekitaldia.

c) Aurkezten den eredua: 180.

d) Aitorpen egilearen Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFZ).

e) Aitorpen egilearen deiturak eta izena, edo sozietatearen izena.

f) Aitorpen egilearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

g) Harremanetarako norekin hitz egin behar den. Deiturak eta izena.

h) Harremanetarako pertsonaren telefonoa eta hedapena.

i) Erregistro kopurua guztira.

j) Euskarriaren dentsitatea: 1600 edo 6250 BPI, zintetan; eta 360 Kb, 1,2 Mb, 720 Kb edo 1,44 Mb, 51/4" edo 31/2", disketetan.

Datu horiek agertzeko, datuak bakoitza dagokion letrarekin ezartzea nahikoa izango da, aurreko zerrenda horri jarraituz.

Fitxategiak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri bat baino gehiago izanez gero, euskarriek txartel bana izango dute hurrenkera zein den adierazteko, modu honetan: 1/n, 2/n, e.a. ("n" hori euskarri kopuru guztia da). Bigarren eta hurrengo euskarrien datu txarteletan a), b), c), d) eta e) letretako datuak baino ez dira jarri behar.

6.- 180 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian taldeko aitorpena egiteko erabiltzen denean, aurkezpena egiten duen pertsona edo entitateak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

6.1) 180 ereduan aurkezleari dagozkion laburpen orriaren bi aleak, administraziorakoa eta interesatuarentzakoa, behar bezala izenpetuta. Aurkezle gisa dihardun pertsona edo entitatearen identifikazio datuak agertu behar dira identifikazio etiketa dagokion lekuan itsatsita. Era berean, aitorpen egileen kopuru osoa, zerrendatutako errentatzaile kopuru osoa agertu behar dira, bai eta zein den ekitaldia ere. Eta aurkezpen motari dagokion laukia bete behar da.

180 ereduaren laburpen orrian aurkezleari dagozkion gainerako datuak ez dira beteko.

Bulego hartzaileak zigilua ezarri eta aurkezleak 180 ereduaren laburpen orriaren "interesatuarentzako alea" jasoko du. Ale hori aurkezpena egin dela frogatzeko balio izango du.

6.2) 180 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, administraziorakoa eta interesatuarentzakoa, taldeko aurkezpenaren barruan dauden aitorpen guztiei dagokienez. Behar bezala izenpetuta eta beteta aurkeztu behar dira.

Una vez sellados por la oficina receptora, el presentador retirará los "ejemplares para el interesado" de las hojas-resumen correspondientes a los declarantes, que servirán como justificantes de la entrega.

6.3) El soporte directamente legible por ordenador deberá tener una etiqueta adherida en el exterior, en la que se hagan constar los datos del presentador que se especifican a continuación, y necesariamente en el mismo orden:

a) Diputación Foral de Alava.

b) Ejercicio.

c) Modelo de presentación: 180.

d) Número de Identificación Fiscal (NIF) del presentador.

e) Apellidos y nombre, o razón social, del presentador.

f) Domicilio, municipio y código postal del presentador.

g) Apellidos y nombre de la persona con quien relacionarse.

h) Teléfono y extensión de dicha persona.

i) Número total de registros.

j) Densidad del soporte: 1.600 ó 6.250 BPI, sólo cintas, y 360 KB, 1,2 MB, 720 KB ó 1,44 MB, en disquetes de 51/4" ó 31/2".

k) Número total de declarantes presentados.

l) Número total de arrendadores relacionados.

Para hacer constar los referidos datos, bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que le corresponda, según la relación anterior.

En el caso de que la presentación conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/n, 2/n, etc., siendo "n" el número total de soportes, pero en la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes, sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c), d) y e) anteriores.

SEXTO.- Arrendadores no residentes en territorio español.

Cuando en las hojas interiores del resumen anual deban relacionarse arrendadores que, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en cada momento, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre Sociedades, no tengan la consideración de residentes en territorio español ni operen en dicho territorio mediante establecimiento permanente y no hubieran acreditado dicha condición, se hará constar como código provincia-país correspondiente al domicilio de los mismos la expresión numérica "99NNN", siendo "NNN" el código de tres dígitos del país/territorio de residencia del perceptor, de acuerdo con las claves de países/territorios que figuran en la Orden de 23 de diciembre de 1997.

SEPTIMO.- Precio del modelo 180:

El precio de todos los impresos que componen el modelo 180 se fija en 10 pesetas ejemplar.

DISPOSICION FINAL.- La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 1998.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

Bulego hartzaileak zigilua ezarri eta aurkezleak 180 ereduaren laburpen orrien "interesatuarentzako aleak" jasoko ditu. Ale horiek aurkezpena egin dela frogatzeko balio izango dute.

6.3) Ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian txartel bat jarri beharko da, kanpo aldean, ondoren zerrendatzen diren datuak agertzeko. Datuak aurkezleari dagozkio, eta hurrenkera honetan bertan agertu behar dute. Hona:

a) Arabako Foru Aldundia.

b) Ekitaldia.

c) Aurkezten den eredua: 180.

d) Aurkezlearen Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFZ).

e) Aurkezlearen deiturak eta izena, edo sozietatearen izena.

f) Aurkezlearen helbidea, udalerria eta posta kodea.

g) Harremanetarako norekin hitz egin behar den. Deiturak eta izena.

h) Harremanetarako pertsonaren telefonoa eta hedapena.

i) Erregistro kopurua guztira.

j) Euskarriaren dentsitatea: 1600 edo 6250 BPI, zintetan; eta 360 Kb, 1,2 Mb, 720 Kb edo 1,44 Mb, 51/4" edo 31/2", disketetan.

k) Aurkezten diren aitorpen egileen kopuru osoa.

l) Zerrendatutako errentatzaileen kopuru osoa.

Datu horiek agertzeko, datuak bakoitza dagokion letrarekin ezartzea nahikoa izango da, aurreko zerrenda horri jarraituz.

Fitxategiak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri bat baino gehiago izanez gero, euskarriek txartel bana izango dute hurrenkera zein den adierazteko, modu honetan: 1/n, 2/n, e.a. ("n" hori euskarri kopuru guztia da). Bigarren eta hurrengo euskarrien datu txarteletan a), b), c), d) eta e) letretako datuak baino ez dira jarri behar.

SEIGARRENA.- Espainiako lurraldean bizi ez diren errentatzaileak.

Errentatzaileak Espainiako lurraldean bizi ez badira eta lurralde horretan establezimendu iraunkor baten bidez aritzen ez badira, edo egoera hori egiaztatuta ez badute, urteko laburpenaren barruko orrietan agertu beharko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren araudi indarrekoan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, helbideari dagokion "probintzia-herrialdea" kodean "99NNN" zenbakizko adierazlea jarri beharko da, "NNN" hori hartzaileak helbidea duen lurraldeari dagokion hiru digituko kodea delarik. Herrialdeen kodeak 1997ko abenduaren 23ko Aginduan jasota daude.

ZAZPIGARRENA.- 180. ereduaren prezioa:

180 eredua osatzen duten inprimaki guztien prezioa 10 pezeta izango da aleko.

AZKEN XEDAPENA.- Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 1998ko azaroaren 27a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos — Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

# RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FISICAS Y DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ETA SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

## RENDIMIENTOS PROCEDENTES DEL ARRENDAMIENTO DE INMUEBLES URBANOS

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ERRENTAMENDUTIK ETORRITAKO ETEKINAK

**RESUMEN ANUAL** / URTEKO LABURPENA

**180**

## 1 IDENTIFICACION / IDENTIFIKAZIOA

**ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA**
IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO ESPAZIOA

## 2 EJERCICIO Y TIPO DE PRESENTACION
EKITALDIA ETA AURKEZTEKO MODUA

**EJERCICIO** / EKITALDIA .....

**Declaración complementaria** / Aitorpen osagarria .....

**PRESENTACION EN** / AURKEZTEKO MODUA:

**Impreso** / Inprimakia .....

**Soporte** Euskarria:
- **Individual** / Indibiduala .....
- **Colectivo** / Kolektiboa: **Presentador** / Aurkezlea ..... / **Declarante** / Aitorpen-egilea ..

## 3 RESUMEN DECLARACION / AITORPEN LABURPENA

**DATOS TOTALES CONSIGNADOS EN LAS HOJAS INTERIORES (O EN EL SOPORTE)**
BARRUKO ORRIETAN (EDO EUSKARRIETAN) JASOTAKO DATUAK GUZTIRA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Número total de arrendadores** Errenta-hartzaile kopurua guztira ..... | 01 | | | | |
| **Importe de los rendimientos dinerarios** Diru etekinen zenbatekoa ..... | 02 | | **Importe de las retenciones** Atxikipenen zenbatekoa ..... | 03 | |
| **Importe de los rendimientos en especie** Gauzazko etekinen zenbatekoa ..... | 04 | | **Importe de los ingresos a cuenta** Konturako sarreren zenbatekoa ..... | 05 | |

## 4 PRESENTACION COLECTIVA / AURKEZPEN KOLEKTIBOA

**a) RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN EL SOPORTE COLECTIVO, (Estos datos se cumplimentarán únicamente en la hoja -resumen correspondiente al presentador)**

a) EUSKARRI KOLEKTIBOKO DATUEN LABURPENA, (aurkezleari dagokion laburpen-orrian baino ez dira jarriko datu horiek)

| | | |
|---|---|---|
| **Número total de personas o entidades retenedoras incluidas en el soporte colectivo** Euskarri kolektiboan agertzen diren pertsona edo entitate atxikipen-egileen kopuru osoa | 06 | |
| **Número total de arrendadores incluidos en el soporte colectivo** Euskarri kolektiboan agertzen diren hartzaileen kopuru osoa | 07 | |

**b) N.I.F. DEL PRESENTADOR**
**(Este dato se cumplimentará en todas las hojas-resumen correspondientes a cada una de las personas o entidades retenedoras incluidas en el soporte colectivo)**

b) AURKEZLEAREN I.F.Z.
(Euskarri kolektiboan agertzen den pertsona edo entitate atxikipen-egile bakoitzari dagokion laburpen-orri guztietan jarriko da datu hori)

| | |
|---|---|
| 08 | |

## 5 SELLO Y FIRMA / ZIGILUA ETA IZENPEA

## 6 SELLO REGISTRO ENTRADA / SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA

## INSTRUCCIONES

**El modelo 180 se compone de una hoja-resumen y de hojas interiores de detalle de las percepciones. La hoja-resumen deberá ser cumplimentada y presentada, en todo caso, cualquiera que sea la modalidad de presentación de las hojas interiores: en papel (modalidad impreso) o en soporte directamente legible por ordenador.**

Con carácter general, en el modelo 180 se incluirán los datos correspondientes a la totalidad de las rentas satisfechas por la persona o entidad declarante cuyo devengo se haya producido en el ejercicio al que se refiere el resumen anual.

La presentación en impreso se deberá realizar en los veinticinco primeros días naturales del mes de enero de cada año respecto a las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al año anterior. Si la modalidad de presentación es en soporte directamente legible por ordenador, con el mismo contenido mencionado para la presentación en impreso, deberá presentarse en el plazo comprendido entre el 1 de enero y el 10 de febrero de cada año.

La Administración competente a efectos de la presentación del modelo 180 será la Diputación Foral de Alava cuando el retenedor tenga su domicilio fiscal en Alava.

**HOJA RESUMEN:**
**IDENTIFICACION:**
**EJERCICIO Y TIPO DE PRESENTACION**

**Ejercicio:** Se consignarán las dos últimas cifras del ejercicio al que corresponde la declaración.

**Declaración complementaria:** Se cumplimentará este apartado única y exclusivamente cuando la presentación de la declaración tenga por objeto incluir retribuciones satisfechas que, debiendo haber sido incluidas en otra declaración del mismo ejercicio presentada con anterioridad, hubieran sido totalmente omitidas en la misma. En estos supuestos se marcará una «X» en la casilla «Declaración complementaria».

En la declaración complementaria solamente se incluirán las percepciones omitidas que motivan su presentación.

No se utilizará la declaración complementaria respecto a cantidades satisfechas en el período cuyo devengo se haya producido en un ejercicio anterior (por ejemplo, en concepto de atrasos). Dichos rendimientos se relacionarán en la declaración del ejercicio en que se abonen, utilizando la casilla «ejercicio devengo» para informar de esta circunstancia. Ver instrucciones en hojas interiores.

Las rectificaciones de los datos erróneos o incorrectos, así como la subsanación de los datos incompletos incluidos en las declaraciones presentadas no darán lugar a la presentación de declaraciones complementarias, sino que se comunicará esta circunstancia a la sección del Impuesto sobre Sociedades (Retenciones).

**Modalidad de presentación:** Marque con una «X» el recuadro, o recuadros, que corresponda (n) a la modalidad de presentación de esta declaración. En primer lugar, se especificará si la presentación se realiza en impreso o en soporte directamente legible por ordenador. En este último caso, se indicará, además si se trata de soporte individual (declaración de un único retenedor) o de soporte colectivo (declaraciones de varios retenedores). Asimismo, en caso de que la presentación se efectúe en soporte colectivo, deberá indicarse si los datos reflejados en la hoja-resumen se refieren al presentador o a uno de los retenedores cuya declaración se incluye en dicho soporte.

Atención: Será obligatoria la presentación del modelo 180 en soporte legible por ordenador cuando la relación incluya más de 100 perceptores.

**RESUMEN DE LOS DATOS INCLUIDOS EN LA DECLARACION**

En las diferentes casillas de este apartado se hará constar el resumen de los datos consignados en las hojas interiores (o en el soporte), con arreglo a la siguiente distribución:

01 **«Nº total de perceptores-arrendadores»**: Consigne el número total de las percepciones (registros) relacionados en todas las hojas interiores (o en el soporte) con independencia de las claves de percepción a que correspondan. Si un mismo perceptor figurase más de una vez en las hojas interiores en la misma o en diferente clave de percepción, se computarán tantos perceptores como veces aparezca relacionado.

02 **«Importe de los rendimientos dinerarios».**

03 **«Importe de las retenciones».**

04 **«Importe de los rendimientos en especie».**

05 **«Importe de los ingresos a cuenta».**

**PRESENTACION COLECTIVA (DATOS ADICIONALES)**

En los supuestos de presentación en soporte colectivo, a la hoja-resumen correspondiente al presentador, deberá acompañarse una hoja-resumen por cada una de las personas o entidades retenedoras incluidas en el soporte presentado.

**Datos a cumplimentar en la hoja-resumen correspondiente al presentador.**

06 **«Número total de personas o entidades retenedoras incluidas en el soporte colectivo»**. Indique el número de retenedores cuyas declaraciones se incluyen en el soporte colectivo presentado.

07 **«Número total de arrendadores incluidos en el soporte colectivo»**: Indique el número total de perceptores de rentas o rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos que se hayan incluido en el soporte colectivo, con independencia de las personas o entidades retenedoras a que correspondan. Dicho número habrá de coincidir con la suma de los números totales de perceptores reflejados en las casillas 1 de las hojas-resumen de los retenedores incluidos en el soporte.

**Datos a cumplimentar en la hoja-resumen de cada uno de los retenedores:**

08 **«N.I.F. del presentador»**: Se hará constar en las hojas-resumen de cada uno de los retenedores incluidos en el soporte colectivo.

## JARRAIBIDEAK

**180 eredua laburpen-orri batek eta perzepzioak zehazteko barruko orriek osatzen dute. Laburpen-orria bete eta aurkeztu behar da beti ere, berdin dela zein aurkezpen-motatan dauden barruko orriak, edo paperetan (inprimakia) edo ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrietan.**

Oro har, 180 ereduan, aitorpena egiten duen pertsona edo entitatearen errenta guztiei dagozkien datuak jasoko dira, errenta horien sortzapena urteko laburpena dagokion ekitaldian izan bada.

Inprimakia urteroko urtarrilaren lehenengo hogeita bost egun arruntetan aurkeztu behar da, aurreko urteari dagozkion zenbateko atxikiak eta konturako sarrerak direla-eta. Aurkezteko modua ordenagailuz zuzenean irakurtzekoa bada, urteroko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era bitartean aurkeztu beharko da, inprimakia aurkezteko aipatu den eduki berarekin.

180 eredua aurkezpenerako administrazio eskuduna Arabako Foru Aldundia izango da, atxikitzaileak zerga helbidea Araban duenean.

**LABURPEN-ORRIA:**
**IDENTIFIKAZIOA:**
**EKITALDIA ETA AURKEZTEKO MODUA**

**Ekitaldia:** Aitorpena zein zergaldiri dagokion jarri behar da; horretarako, ekitaldiaren azken bi zenbakiak jarriko dira.

**Aitorpen osagarria:** Atal hau bete behar da baldin eta aitorpena ekitaldi bereko beste aitorpen bat aurretik aurkeztu eta hartan jaso beharreko ziren eta jaso ez ziren ordainketak jasotzeko egiten bada. Kasu horretan baino ez da egingo aitorpen osagarria. Hala egiten denean, "X" bat jarri beharko da "aitorpen osagarria" dioen laukitxoan.

Aitorpen osagarrian hura egiteko motibo diren perzepzioak baino ez dira jasoko.

Ez da aitorpen osagarria erabiliko ekitaldian ordaindu bai, baina sortzapena aurreko ekitaldi batean izan duten zenbatekoak jasotzeko (atzerapenengatik, esaterako). Egiten diren ekitaldiaren aitorpenean zerrendatuko dira etekin horiek, "sortzapen ekitaldia" laukitxoa erabiliko dela horren berri emateko. Ikus aurreko orrietako jarraibideak.

Aurkeztutako aitorpenetan egin diren akatsak edo agertzen diren datu okerrak zuzentzeko falta diren datuak gaineratzeko ezin izango da aitorpen osagarririk erabili. Kasu horietan, Sozietateen gaineko Zergaren bulegoari jakinarazi beharko zaio.

**Aurkezteko modua:** Jar ezazu "X" bat zure aitorpenari dagokion aurkezpen-moduaren laukitxoan, edo laukitxoetan, bat baino gehiago izanez gero. Lehenbizi, aitorpena inprimaki bidez edo ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri bidez aurkezten den zehaztu behar da. Bigarren kasuan, norbanako bati dagokion euskarria (atxikipen-egile bakar baten aitorpena) ala euskarri kolektiboa (atxikipen-egile zenbaiten aitorpena) den adierazi beharko da. Era berean, aitorpena euskarri kolektiboan eginez gero, laburpen-orrian jasotzen diren datuak aurkezleari dagozkion edo euskarrian agertzen den aitorpen baten atxikipen-egileari dagozkion adierazi beharko da.

Ohar garrantzitsua: zerrendan 100 hartzaile baino gehiago jasoz gero,180 eredua ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarri batean aurkeztubeharko da nahitaez.

**AITORPENEAN JASOTZEN DIREN DATUEN LABURPENA**

Atal honetako laukitxoetan barruko orrietan (edo euskarrian) agertzen diren datuen laburpena azalduko da, honako banaketa honen arabera:

01 **"Hartzaile-errentatzaileen kopurua guztira":** Barruko orrietan (edo euskarrian) agertzen diren perzepzio (erregistro) guztiak jar itzazu, alde batera utzirik haiei dagozkien perzepzio gakoak. Hartzaile bat barruko orrietan, bai perzepzio gako bakar batean bai gehiagotan, azalduz gero, agertzen den aldi bakoitzagatik behin kontatuko da.

02 **"Diru etekinen zenbatekoa".**

03 **"Atxikipenen zenbatekoa".**

04 **"Gauzazko etekinen zenbatekoa".**

05 **"Konturako sarreren zenbatekoa".**

**AURKEZPEN KOLEKTIBOA (DATU GEHIGARRIAK)**

Aitorpena euskarri kolektiboaren bidez aurkezten denean, aurkezleari dagokion laburpen-orriari euskarrian agertzen diren pertsona edo entitate atxikipen-egile bakoitzari dagokion laburpen-orria erantsi beharko zaio.

**Laburpen-orrian aurkezleari dagokionez jaso beharreko datuak**

06 **"Euskarri kolektiboan agertzen diren pertsona edo entitate atxikipen-egileen kopuru osoa".** Adieraz ezazu zenbat atxikipen-egileren aitorpenak jasotzen diren euskarri kolektiboan.

07 **"Euskarri kolektiboan agertzen diren errentatzaileen kopuru osoa".** Adieraz ezazu zenbat hartzaile agertzen diren euskarri kolektiboan, hiri ondasun higiezinen errentamendutik etorritako errentak edo etekinak jasotzen dituztenak, alde batera utzirik zein pertsona edo entitate atxikipen-egileri dagozkion. Zenbaki honek eta euskarriko atxikipen-egileen laburpen-orrietako 1. laukitxoan agertzen diren hartzaile kopuruen batura zenbakiek bat etorri behar dute.

**Atxikipen-egile bakoitzaren laburpen-orrian agertu beharreko datuak:**

08 **"Aurkezlearen IFZ".** Euskarri kolektiboan agertzen diren atxikipen-egile guztien laburpen-orrietan jaso beharko da.

Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

